

Jesusa Gisasola

*Antzuola
Gipuzkoa (1915)*

Aurkibidea

Biografia



Begarako Elosu auzoko Lutxurdio baserrian jaio zen. Ikatza egiten zuten etxean eta gero Bergaran saldu. Baserriko bizimoduaren inguruko hainbat kontu kontatzen ditu. Antzuolara ezkondu zen eta bertan egin zitzaion elkarriketa [Juliana Aranguren](#)ekin batera.

Zintak

ANT-047

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Antzuola
- **Elkarriketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar

- **Data:** 2004-09-29
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Elortza, Kepa - Elexpuru, Juan Martin

ANT-048

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Antzuola
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2004-09-29
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar

Pasarteak

1. Erromeriak Elosuko bentan eta Aizpurutxon

- **Erref:** ANT-047/024
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:26:05. **Bukatu:** 00:27:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Lutxurdio baserrian jaiotakoa 1915ean. 10 anai-arreba. Auzo guztietan jende gazte asko egoten zen; erromeria handiak. Elosuko bentan eta Aizpurutxon erromeria handiak egoten ziren.</p>

Transkripzioa

-Zeure izena-ta... Nun jaixotakua zara?
 -Ni Elusun, Elusun Lutxurdion, Lutxurdio basarrixan.
 -Eta ze urtetan? Mil novecientas quince. 11 de junio de 1915 jaixotakua naiz ni.
 -Eta esan dozu anai-arreba asko ziñaziela?
 -Hamar.
 -Eta orduan Elusu zela gogoratzen dozu?
 -Elusu. Orduan jente, auzo danetan jente gaztia egoten zan, gero danak ba erromeixan-eta, Elusun ba badakizu..., sasoian.
 -Larregi ez da aldatu... Basarri asko hustu...
 -Bai, basarri asko hustu eñ da Elusun. Lehen basarri asko zan Elusun, eta danak hantxe kuadrillan. Eta Bentan, Elusuko Bentia igual entzunda eukiko dozu. Elusuko Bentan erromeixia, eta Aizpurutxon e erromeixia egoten zan.
 -Horrek zien famosuenak?
 -Aizpurutxon e erromeixia egoten zan; harek aldekuak, beste aldeko zera, eta gu berriz Elusura gehixenien juten giñen, ixa beti Elusura erromeixara.

2. Eskola kontuak: Bergarako mojak

- **Erref:** ANT-047/025
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:27:30. **Bukatu:** 00:30:25

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Umetan mojetan ikasitakoa Bergaran. Ikastetxean neska asko; izen handia zuen. Ikasleen artean desberdintasunak; internak. Zer ikasten zuten. Nesken hezkuntza.

Transkripzioa

-Eta ume-umetan esan dozu Bergaran ibili ziñala eskolan monjetan.
 -Bai, monjetan han ibili nintzan Bergan eskolan.
 -Eta han zelakuak zien klasiak, gogorrak?
 -Danerakuak han e, batzuk gogorrak eta... Oinddio puntuan hil da ni eskolan ibili nintzan..., Madre Rosario. Bai, oinddio bi urte ez dakit dien gure Maitek esan ostala.
 -Jente asko egoten zan, ezta?
 -Bai, bai, jente asko egoten zan.
 -Izen ona zekan eskola horrek?
 [...]
 -Bai, Enseñanza. Oin be Enseñanzia badao Bergan, e.
 -Baiña jente asko interna kanpotik etortzen zan.
 -Bai, bai, kanpotik etorten zan. Jente aberatsa be bai kanpotik etorten zan lehen horra.
 -Jente aberatsa?
 -Bai, bai. Hor aberatsak egon zan klase bat, aberatsak edo, dirua zeukenak, zertzen zeбенak. Eta beste batzuk... bestelakuak izengo zien.
 -Hor be diferentziak egongo zien. Batzuk internak eta...
 -Bai. Aberatsak eta internak, eta beste zerak egoten zien. Bi klase.
 -Eta zertan igartzen zan hori? Uniformia diferentia zan ala...
 -Uniformia erabilten zeбен zerak, pagatzen zeбенak. Guk uniformeik ez giñuan erabiltten.
 -Ze uniforme erabiltzen zeбен?
 -Azul marinua. Bai, uniforme azul marinua ibiltten zan.
 -Gogorrak zian monjak?
 -Batzuk gogorrak, beste batzuk biguntxuauak, eta danerakuak han'e egoten zien.
 -Ze ikasten zenduen?
 -Ze ikesi? Ba dotriña. Orduan dotriña zan printzipalen hori; dotriña eta leitzen eta eskribitzen eta holakotxe gauzak.
 -Nesken edukaziñuari ez jako inportantziarik emon, behintzat lehen. Neskak dotriña, josten, koziña...
 -Guk hortarako astirik ez giñuan izen, laster alde ein bihar izan giñuan handik. Bai ba, ama hil zan, aitta gaixotu zan; aitta gaixotu zani en etxera eruan ninduen, eta gero handik Elusura eskolara.
 -Orduan zu monjetara zenbat urtekin?
 -Xei urtekin.

3. Umetan ikazkin ibilitakoa anaiekin batera

- **Erref:** ANT-047/026
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:30:25. **Bukatu:** 00:33:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

<p>Umetako bizimodua baserrian. Ganadu-zain sarritan. Ikazkintzan ere ibili izan zen, anaiekin batera. Txondorra nola egiten zen azaltzen du; azalpen interesgarriak. Lexiko aberatsa. Ikatza Bergaran saltzen zuten.</p>

Transkripzioa

-Ama hil eta berriz be Elusura?

-Bai.

-Eta zelakua zan zure bizimodua Elusun?

-Zela izengo zan ba gure bizimodua? Ardixak zainttu eta behixak zainttu-ta.

-Ganauak zekazuen?

-Bai. Hamar bat ganau eta beste hirurogei edo hirurogeta hamar bat ardi.

-Eta zeu ittulan ibiltzen ziñan?

-Ittulan? Bai, hoixe bai ittulan ibiltten giñala. Gogo haundi barik ittulan, hoixe. Eta ikezgiñan e bai, ez ittulan bakarrik, iketza eitten.

-Zeiñek eitten zeban ba ikatza?

-Anaiak. Anaiek eitten zebeu iketza, eta harek botatzen zebeu egurra, pa(g)o egurra lurrera, eta gu hartu aixkoria eta haura triskatzen. Zerak kentzen, abarrak kentzen harei iketza eitteko.

-Gutxi gorabehera jakingo zenduke esaten zer gauza ein bihar izaten zien txondorra eitteko?

-Txondorra eitteko?

-Lehenengotik pago egurra bota...

-Bai; gero botatzen zan ostrua, zeran ostrua, pao ostrua edo zera.

Txondorra einddakuan gaiñian botatzen zan hori. Eta gero botatzen zan txondorra lehenengo einddakuan idurixa. Idurixakin haura zera. Idurixa?

Txondorra erretakuan geratzen dan hautsa. Harekin gero tapatzen zan. Eta erdixan zulu eukitzen eban txondorrak. Erdixan huekua, eta hau bezela txondorra, eta hor huekua. Eta gero eitten otxan, botatzen zebeu han goittik behera egur meheia azpitan ipinita sua hartzeko; handik goittik behera botatzen zebeu sua.

-Orduan zuek be parte hartzen zenden ikatza eitteko orduan neskak be bai, nahiz eta txikitxuak izan, gaztiak izan.

-Bai. Hantxe juten giñan geu be.

-Betidanik... Zuen basarrixan txondorra eitten zan, aittak be txondorra eitten zeban?

-Gurian aittak e txondorra bai beti, aurrekuak e uste dot beti txondorra eitten zebela. Aittak eta be bai. Eta gero anaiak.

-Eta gero ikatz horrekin zer?

-Ba iketza saldu eitten zan.

-Bergara erun eta saldu eitten zebeu iketza.

Pakita: Oin beste diru be etzan ibiliko orduan bueltaka eta...

-Ez ba. Burdikara-iketzak erun Bergara eta ordun halaxe bizi. Haretzekin. Gari puxkat-eta saldu-ta. Garixa asko hartzen-eta.

4. Ikatza Bergaran saltzen zuten

- Erref: ANT-047/028

- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:34:05. **Bukatu:** 00:35:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Ikatz asko egiten zuten eta Bergaran saltzen zuten. Lapurren inguruko kontuak.

Transkripzioa

-Orduan ikatz-burdikarak...

-Bai, Bergara erun, Bergara eruten zien iketzak. Iketza asko itten zan.

-Zein joaten zan ikatza saltzera?

-Ba anaia.

-Bezeruak zekazen?

-Bai, bezeruak eukiko zittuen, anaia juten zan behintzet. Eta ordun e lapurrak bazien, ez gaur bakarrik. Gure anaiai etxera zetorrela bidian erten otxen, hori Irutxaboletatik gora erten otxen lapurrak.

-Bai, e?

-Bai. Eta ihes ein guriak; eta Ameztiko itxeburutik gora etorri eta itxera, eta ganaurik ez. Baiña ganauek zentzuna euki ordun e; erak etorri, zu, etxera.

-Ikatzan dirua kentzera igual?

-Bai, iketzan dirua kentzera. Eta ordun itxekonak, bi bizitzakua zan gure basarrixa. Eta bi bizitza aparte. Itxekon aitta eta ama etorritta eta; ze pasau ete zan, eta larri. Eta gure Eugenio, ene!, haren estuasuna eta zeta-ta, eta ganaurik ez agiri, eta halako batian zain eta zain, eta batzun batzuk ganau eske jun biheko zabela..., erak etorri ganauak. Erak etorri ganauak.

-Orduan lapurrak ibiltzen zien?

-Bai. Ibiliko zien, hari erten otxen behintzet eta.

-Orduan ikatzen diruakin bueltauko zan eta.

-Dirua ba, dirua.

-Orduan dirua etzan larregi ikusten...

Pakita: Justoko gauzia izengo zan, orduan diru faltia euan eta.

-Diru faltia egongo zan orduan e.

5. Ikazkintza; gaztaina-batzea

- **Erref:** ANT-047/029
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:35:50. **Bukatu:** 00:38:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Ikatzaren inguruko kontuak. Egur asko behar izaten zen ikatza egiteko. Basoak nolakoak ziren. Ingurua asko aldatu da. Gaztainadiak; gaztaina-batzea. "Motxardia".

Transkripzioa

-Orduan ikatza eitten laguntzen zenduan...

-Bai. Han ibiltten giñan gu be anaiakin batera, zeozetan. Iketza egosten zanian zakuak bete eraiñ saltzeko, eta holaxe.

-Eta txondorrek zenbatero eitten zenduen?

-Eztakitt zenbat egun pasatzen zittuen txondorrek. Hoixe ez notxuke esango zenbat egunian egosten zan.

-Eta urtebetian zenbat txondor eitten zenduen?

-Ba urtian hiru-lau bat ero ingo zien, hiru-lau bat txendor.

-Inguruko baserrixetan be ingo zian igual, ez?

-Eztakitt ostientzian basarritan hor asko eitten zan iketza. Eingo zebeñ. Elormendi Azpikun eta bai eitten zebeñ iketza. Ostientzien eztakitt besarri askotan ingo zan.

Pakita: Egurra biko zan...

-Egurra. Egurra asko. Zan pagarixak haundixak. Eta gero, ba, oiñ danak piñu sartuta dauzke.

-Bai, Elusu be aldatu da...

-Aldatu, dana aldatu.

-Lehen ze zan, pagua?

-Pagua.

-Gaztaiñarik etzan egongo?

-Baita gaztaiñia. Bai. Gaztaiña-sail haundixak zeren gure etxien. Gaztaiña be asko batzen zan. Askok batzen zan, eta geuretako gehixegi egoten zan, eta gero asko... baten bati emoten gontxan erdira batzeko. Elormendi Azpikuai. Erdixa erendako.

Pakita: Gero ataixan pillau etzan ba eitten gaztaiñia?

-Bai. Gero gaztaiñia apartau eta. Ardixendako eta, geuk jateko, gaztaiñerriak jateko-ta.

Juliana: Motxardia esaten jakon holako zer bat, haretxekin apartatzen gaztaiñak.

-Eta zelakua zan motxardia?

-Egurrezko holakotxe bat, holako zer... zittuena. Harekin batu. Koskola-re harekin batu. Ezin ba eskuakin, motxardiakin batu koskola-re.

-Eta nun gordetzen zenduen gaztaiñia?

-Etxian barruan gordetzen giñuan. Ordun lekuak haundixak egoten zien eta erun eta hustu burdikadia, eta ba... Gero neguan jateko; eta txarrixandako, eta geuretako, eta ardixendako. Eta gaztaiñia egoten zan ba nahikua.

6. Baserrian zer jaten zuten

- **Erref:** ANT-047/030
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:38:35. **Bukatu:** 00:41:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Errezetak

Laburpena:

<p>Jatekoaren inguruko azalpenak. Ia egunero babak; artoa eta esnea; taloa. Morokila, taloa... nola egiten ziren azaltzen dute.</p>

Transkripzioa

-Orduan janarixa beti izango zan babia, lapikua?

Juliana: Bai. Egunero babak. Esateko, egunero babak.

-Ixa egunero babak, azia eta holakuak. Eta jaixan garbanzua puxkat haragi egosi puxka batekin. Eta holaxe. Ordun holaxe izeten zan.

-Gaztaiñarik?

-Bai, gaztaiña asko.

-Artua?

-Baita artua be. Garixa saldu eitten zan. Garixa gehixegi egoten zan eta saldu eitten zan garixa. Talua ta esnia jan-eta.

Juliana: Morokilla be bai.

-Baita morokilla be.

-Zela eitten zan morokilla?

Juliana: Ura ipiñi eta gero bota iriña, arto-iriña, eta gero eraiñ eta eraiñ, ondo-ondo egosi eta. Gozua izeten da.

-Bai, gozua, hoixe gozua izeten dala.

-Talua zeinek eitten zeban zuen etxian?

-Amandriak.

Juliana: Aizkomenta amak edo.

-Amandria izeten zan gurian talogillia. Eta gero, klaro, hamaxei urte neuzkala amandria hil zan, eta hara arteraiño amandria izeten zan talogillia. Eta gero geu.

-Zela eitten zenduen talua?

-Iriñai, gatza bota urai, eta iriñakin nahas-nahas eiñ, eta gero sendo-sendo eiñ. Ogi masia bezela; eiñ masia eta taluak eiñ gero.

Pakita: [...] gaiñian jo.

-Akordatzen haiz hi be. [...] Talopalia

-Eta sekreturik egoten zan talua ondo urtetzeko?

Juliana: Mehia ein bihar harrotuko bazan. Sendua eiñ ezkerio ba, bertan, e, zapala. Harro samarra nahi baziñuan ba mehe-mehe ebai-ta...

-Harrua da, talo harrua edarra.

Juliana: haura gozuaua.

-Orduan diferentzia dao talo batetik bestera?

-Iriñakin e bai, iriñak e diferentzia.

7. Garia errotara; ogi klaseak

- **Erref:** ANT-047/031
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:41:00. **Bukatu:** 00:43:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Elosun, beraien auzunean, errota bat zegoen. Auzokoen artean hartuta zuten errota. Irina eralgi; bahea. Bi klasetako ogiak. "Basilloria".</p>

Transkripzioa

-Elusu aldian garixa saldu eitten zala esan dozu. Errotara-eta eruango zenduen, ezta?

-Gurien auzuen auzoko jentiek zeukan errota erak eindda. Eren kontura.

Eta gero ba hara erueten zebe ihotzeko artua eta garixa-eta. Hantxe ixo-
ta.
-Errota horrek izenik bazekan?
Pakita: Errotia nun zeuan?
-Etxeberrittara, harutz, Kortaberri Azpiko etxian parian behian. Ez haiz
akordutzen?
Pakita: haura jausi zan puntuan, ezta?
-Bai. [...]
-Orduan auzokuen artian errotia.
-Auzokuen artian errotia.
-Baina gero bertan lan eitten zeban errotarixak?
-Bai. Itxekon Florentino, Lutzurdioko Florentino. Gure bestekua egoten zan
errotari, gizona.
Pakita: Ixotzen egongo zan haura.
-Bai. Artua ixo-ta, artua eta garixa ixo-ta.
-Diferentziarik egoten zan iriña zelakua urten, fiñaua...
Pakita: Errotarixana be diferentzia izengo zan puxkat, ez?
-Izengo zan. Gero orduen bahiek izeten zien iriña eralteko. Izeten zan ogixa
fiña, eta gero bestia puxkat bastotxuaua igual. Eta bi klasetako ogixak
izeten zien. Eitten zien orduan.
[...]
-Basilloria.
Pakita: Zabaltxuauetan pasautakua.
-Bai. Bahe fiñian pasautakua bat, bahe fiñian pasautakua bat, eta bestia
bahe bastotxuauan pasautakua. Basilloria hari esaten jakon.

8. Gaztaina erreak, egosiak

- **Erref:** ANT-047/032
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:43:00. **Bukatu:** 00:43:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Gaztainak nola jaten zituzten: erreta, egosita.

Transkripzioa

-Gaztaiña esan dozu batzen zenduela. Gorde. Eta gero zelan jaten
zenduen? Erreta, egositta?
-Danera. Egositta be bai eta erreta be bai, eta danera jaten zan.
-Umiak gustorago jaten zebe erreta eta nausixak egositta?
Pakita: Parian zanian parian zan moduan jan eta kitto. Orduan elejitzeko
etzan egoten eta dagona...
-Dagona jan eta kitto.

9. Bergarako medikua joaten zen Elosura

- **Erref:** ANT-047/033
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:43:35. **Bukatu:** 00:45:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikua eta sasimedikuak

Laburpena:

<p>Elosura Bergarako medikua joaten zen: Don Carlos. Parterarik ez du ezagutu Elosu aldean.</p>

Transkripzioa

- Orduan Elosun medikurik-eta egoten zan?
- Elusun Bergaratik juten zan medikua.
- Eta zein zan gogoratzen dozu? Medikuan izena?
- Medikuan izena? Don Carlos. Urtetan don Carlos egon zan. Bergarako don Carlos urtetan. Oin ez dakit Elusun medikuik dauken edo ez dauken iñor.
- Pakita: Bergaratik jungo da oin be.
- Eta ze joaten zan, zaldixan, oiñez?
- Oiñez jungo zan. Gurian amandria gaixotu zanian, edurra zeon Elusun. Eta don Bizente erun zebe Aizpurutxoraiño automobillian eta Aizpurutxotik zaldixan ixo zebe gora.
- P.: Antzuolako medikua?
- Bai, Antzuolako medikua, don Bizente.
- P.: Haura zer zan, partikular, ala?
- Bai, partikular, jakiña.
- Parterarik-eta inguruan, auzuan?
- Ez dot uste.
- Zelan izaten zan hori Elusun?
- Elusun izeten zan ba izeten zebe moduan. Bakoitzak beran moduan.
- Baten bat egongo zan auzuan, andraren bat gehixago zekixena...
- Gurian Hilarik familixak izan jittunan eta iñor ez zonan izan. Itxekon ama. Haura izeten zan Lutxurdioko parteriori, itxekon ama.

10. Haurdunaldietan, auzoko emakumeen laguntza

- **Erref:** ANT-047/034
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:45:25. **Bukatu:** 00:46:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikua eta sasimedikuak

Laburpena:

<p>Don Vicente medikua. Parterarik ez du ezagutu. Laguntza behar izanez gero, kontu horietan trebeagoa zen auzoko emakumeren bategana jotzen zen.</p>

11. Ume jaio berrien inguruko ohitura zaharrak: elizara sartzea...

- **Erref:** ANT-047/036
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:46:30. **Bukatu:** 00:49:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi

Laburpena:

<p>Emakumea haurdun zegoeneko kontuak. Umea jaio eta hurrengo egunean bataioa izaten zen. Inudea. Ama-puntakoa, aita-puntakoa. Elizara sartzea. Martopilak. Haurrak nola janzten ziren. Umeen arropak garbitzeko zailtasunak...</p>

12. Argindarrik ez baserrietan

- **Erref:** ANT-047/037
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:49:25. **Bukatu:** 00:51:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Umetan, argindarrik ez baserrian. Petrolioak, karburoa... Amandreak esaten zuena.

13. Jostunak baserriz baserri

- **Erref:** ANT-047/038
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:51:35. **Bukatu:** 00:53:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Arropa kontuak. Jostunak egindako arropak. Baserriz baserri ibiltzen ziren jostunak garai batean.

14. Soraluzera eta inguruko herrietara lanera

- **Erref:** ANT-047/039
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:53:25. **Bukatu:** 00:54:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Eskola amaitutakoan, mutil asko lanera joaten ziren Soraluzera eta inguruko herrietara. Bizikletaz joaten ziren. Beste batzuk baserrian gelditzen ziren.

15. Lehenengo autoak Antzuolan

- **Erref:** ANT-047/040
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:54:45. **Bukatu:** 00:55:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Ekonomia eta industria » Lantegiak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Lehenengo autoak Antzuolan, Telleriak, Olaranek, Arbuluk, izan zituzten. "Pollerua".

16. Baskula herriko plazan

- **Erref:** ANT-047/041
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:55:50. **Bukatu:** 00:56:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

Garai batean baskula bat egon zen herriko plazan, egurra... pisatzeko.

17. Telefono zentralita

- **Erref:** ANT-047/042
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:56:40. **Bukatu:** 00:58:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

Telefonoa baserrian noiz ipini zuten. Lehenago, zentralita bat egon zen herrian.

18. Saskigilea Ondarren

- **Erref:** ANT-047/043
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:58:25. **Bukatu:** 00:59:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Ondarren, "zesterua" (saskigilea) egon zen.

19. Errementaria

- **Erref:** ANT-047/044
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:59:25. **Bukatu:** 01:00:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Errementaria Antzuolan. Klean lan egiten zuen.

20. Herri-kirolak Antzuolan

- **Erref:** ANT-047/045
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 01:00:15. **Bukatu:** 01:01:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Idi-probak Antzuolan. Frontoian egiten zituzten. Ahari-jokoa. Apustuak.

21. Hilaturas de Bergara

- **Erref:** ANT-047/046
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 01:01:25. **Bukatu:** 01:02:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Hilaturas de Bergara, Antzuolan egon zen. Gerora, Gasteizera eraman zuten.

22. Antzuolako azkenengo serenoa

- **Erref:** ANT-048/001
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:05

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Serenoak. Ezagutu zuten azkenengo serenoa, Angel 'Lamaiño'.. Serenoaren lana zein izaten zen.

23. Trenaren garrantzia; lurrunezko trena

- **Erref:** ANT-048/002
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:02:05. **Bukatu:** 00:04:10

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Trenaren garrantzia. Geltokiak Amilleta eta Iturriotzen. Lurrunezko trena.

24. Trenez egiten ziren joan-etorriak

- **Erref:** ANT-048/003
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:04:10. **Bukatu:** 00:06:05

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

<p>Jendea trenez nondik nora ibiltzen zen. Zumarraga; Maltzaga. Gerra ostean estraperloa; babak saltzea debekatuta zegoen. Zumarragako feria.</p>

25. Baba-saltzen estraperlo garaian

- **Erref:** ANT-048/004
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:06:05. **Bukatu:** 00:07:15

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:

Errazionamendu garaian, babak saltzea debekatua zegoen. Behin aitak Bergarako Seminaria 13 anega baba nola eraman zituen kontatzen du. Baba klaseak.

26. Baserritik herrira jeneroa saltzera: esnea; gaztak...

- **Erref:** ANT-048/005
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:07:15. **Bukatu:** 00:10:10

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Baba gorriak; zuriak. Ortuariak, etxerako beste. Herrira joaten zen esne-saltzen. Ardi asko zituzten eta gazta ere egiten zuten. Behin obispoa Uzarragara joan zen eta beraiek egindako gaztak asko gustatu zitzaizkion.

27. Gazta nola egiten zuen

- **Erref:** ANT-048/006
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:10:10. **Bukatu:** 00:15:10

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Gazta nola egiten zuen azaltzen du. Gazura; gaztanontzia... Altzaren azalarekin ateratako kearekin keetzen zituzten gaztak. Etxetik bertatik saltzen zituen; ez zen sekula plazara joan gazta-saltzen.

28. Gaztak gari-kutxetan sartzen ziren ondo kontserbatzeko

- **Erref:** ANT-048/008
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:15:25. **Bukatu:** 00:15:55

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Gaztak gari-kutxan sartzen ziren ondo kontserbatzeko.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com